



**Euskaltzaindiak
batasunerako ebatzi dituen
aditz batzuen formak
jorratzen dira fitxa honetan.**



bereizi
biluzi
miretsi
sinetsi
sinistu
sinestatu

BEREIZI

bereizi, bereiz, bereizten. *da/du* ad.

bereiztu* e. **bereizi**.

Lesio motaren arabera bi disfuntzio mota bereizi dira:...

* Lesio motaren arabera bi disfuntzio mota **bereiztu** dira:...

Alderdiko hainbat kide sektore ofizialetik bereizi ziren.

* ...sektore ofizialetik **bereiztu** ziren.



BILUZI

biluzi 1, biluz, biluzten. *da/du*
ad.

biluztu* e. **biluzi**

**Biluzi zen, uretara sartu,
eta igerian hasi zen.**

***Biluztu zen...**

**Pobre biluzia inork ezin
du berriz biluzi.**

***Pobre biluzia inork ezin du
berriz biluztu.**



MIRETSI

miretsi, mirets, miresten. **1**
 du ad.: *haren bertutea miretsi*
zuten paganoek. 2 da ad.: han
ikusi zuenaz miretsi zen.

Denek miretsi zuten
haren kemena.

***Denek mirestu zuten haren**
kemena.

Harritu eta miretsi ziren
guztiak hain albiste ona
entzunda.

***Harritu eta mirestu ziren**
guztiak hain albiste ona
entzunda.



SINETSI

sinetsi, sinets, sinesten. *du*
 ad.: *Jainkoagan sinetsi;*
gezurrak sinetsi; emakumea,
sinets iezadazu (Heg.);
emakumea, sinets nazazu
(Ipar.).



- Ezin zuen ikusten ari zena **sinetsi**.
- Nork **sinetsiko** ditu orain haien zurikeriak?
- Ondo ezagutzen dut, eta **sinesten diot; sinetsiko ez diot, bada!**
- Sinetsiko nauzu nahi baduzu: zuri telefonoz deitzekotan nintzen.**

SINISTU

sinistu, sinis, sinisten. *du* ad.
Bizk. eta Gip. h. sinetsi

Edozeinek bere tokian
hori bera **sinistuko** luke.



SINESTATU

sinestatu, sinesta,
sinestatzen. du ad. *Naf.*
'sinetsi'

**Hik ez duk sinestatuko,
baina egia duk.**

